

ANTZERKIA. Kale antzerkiak Zarauzko kaleak hartuko ditu

Zarauzko Kalerki jaialdia hilaren 12an hasiko da

Hamaika talde eta hamabi ikuskizun aurkeztuko dira guztira



GARI GARAIALDE

Hankagorri taldeko kideak fantasiaz beteriko *Urbasako astronautak* lana antzezten

Olaia Salegi | **DONOSTIA**

Zarauzko VIII. Kalerki Antzerki Topaketak uztailaren 12an hasiko dira, eta, hiru egunez, antzerkia eta festa giroa gogo-ko dituztenen bilgune bihurtuko dira kostalde gipuzkoarreko herri honetako kaleak. Kalerki 2001ek hamaika talde eta hamabi ikuskizun aurkeztuko ditu aurtengo edizioan. Horrela bada, datorren ostegunean, uztailaren 12an, ekingo zaio Alproja Kultur Taldeak eta Zarauzko Udalak antolatutako jaialdiari.

Uda jendea kalera ateratzeko sasoi aproposa bada berez, zer esanik ez uztailaren 14a arte iraungo duen gisa honetako antzerki topaketaren pizgarriaren jakinaren gainean egonik. Hala, hilaren 12, 13 eta 14rako

prestatu diren ekitaldiak Zarauzko kaleetan zehar barreiatuko dira, Musika plazan, Malkoian, Foruen Plazan eta Munoan egingo baitira emanaldiak. Eguraldiak laguntzen ez badu, Lizardi aretoa, frontoira, kiroldegira edota gaztelekura lekualdatuko dira ikuskizunak. Talde euskaldunak, frantsesak zein katalanak bilduko dira Zarautzera, egun bakoitzerako gertatu diren lau emanaldien bitartez euren lanak kaleratuko dituztelarik.

Hiru eguneko egitaraua

Osteguneko 19:00etan hasiko da jaialdia, Alprojakoen pregoiarekin. Egun berean beste hiru ikuskizun aurkeztuko dira: Leandre-Clairek Fragile taularatuko du, eta Senza Tempok *Izenbururik gabe*, eta Gaitzerdik

Girobira. Ostiralean, uztailak 13, Dar-Dar taldeak ekingo dio jendea alaitzeko zeregin ez beti errazari, *Alizia bitxikerien lurraldean* lanarekin. Geroago helduko dira Peter Robertsen *Iratxo koloreduna*, Trapu Zaharraren *Paketetxoa* eta, bigarren aldiz, Senza Temporen txanda, baina oraingoan *Lazurd* lanarekin.

Gisa honetara iritsiko gara Kalerki 2001en azken egunera. Honetarako ere, beste lau talderen antzezlanak aurreikusi dira: Hankagorriren *Urbasako astronautak*, Maimurren *Saltinbankiak datozela*, Leo Alaluren *The clonic man* eta L'Avalot-en *Dinomaquia*, hain justu. Azken honek emango dio amaiera Kalerkiari, mugimendu, argi eta edertasun estetiko handiko ikuskizunarekin.

KRITIKA DANTZA

Agus Perez

Beste euskal koreografoak (1)

Dantzarako. I. Plataforma

Koreografiak eta konpainiak: Pack (Adeshoras), Boj de largo (Ion Munduate).

Lekuak: Barakaldo antzokia eta Barakaldoko herriko plaza. **Data:** Uztailak 6.

Dantzarako I. plataformaren izenburupean abian jarri da lehenengo aldiz euskal koreografoen lanak ezagutarazteko ekimen ofiziala. Iaz ere aurkeztu ziren batera lau euskal koreografo heldu Bilboko La Fundicion aretoan, baina oraingo hau Eusko Jaurilaritzaren Kultur Sailaren babespean datorkigu, eta poztekoa da, behar-beharrezkoa zelako horrelako lan motak jendaurrean ematea, batez ere kontuan izanda koreografo berri edo gazteen lanak duela bost urte hasi zirela eskaintzen.

Aurtengo edizioan lau pieza eman dira Barakaldoko hainbat tokitan, eta gaur aurreneko biak komentatuko ditugu.

Haietariko lehena Nekane Santamariaren *¿Por qué no habéis venido antes? (Zergatik ez zarete lehenago etorri?)* deitzen da, eta bertan gizakiok ditugun komunikazio beharrian eta zailtasunak agertzen zaizkigu hiru neskaren mugimendu eta gorputz lengoaiaren bitartez.

Ikuskizuna oso era alai-tsuan hasten da hiru dantzariak korrika eta saltoka dabil-tzala, gazteen kemena eta arintasuna erakutsiz, baina laster murgiltzen da geldotasunean eta zentzugabean, agian koreografoak berak nahita bilatutako aukera zilegi batengatik. Dena den, luze-luzeak egin zitzaizkigun isiltasun tarteak, eta errepi-katuegiak geratu ziren behin eta berriro baliaturiko ideia

koreografikoak, hala nola gorputz konortegabetuen irudiak, dantzari bakoitzak bere aldetik buruturiko mugimendu segidak eta ikusle-en aurrean egin zituzten biluzte eta arropa aldaketa ugariak.

Bestaldetik, aipatzekoak dira lanaren argiztapen ona eta —batez ere— Underworld taldearen pieza luze eta eder bat entzuteko parada.

Herriko plazan, gauean

Barakaldoko Herriko plaza-ko agertokian eman zuten, gauean, Adeshoras taldekoek *Pack* izeneko emanaldia. Irakurleek gogoratuko zuten, iazko Maiatza Dantzan-egon ziren izen bereko lanarekin Victoria Eugenia al-boa, baina alde nabaria dago orduko eta oraingoaren artean baldintzei eta emaitzari begira.

Hasteko, nik uste dut asko irabazi duela oraingo proposamenak agertoki batetik emanda, hau da, ikusleengandik bereizita, zeren era horretan nabarmenago gertatzen baitira lanaren berebiziko ezaugarriak, kaleko ikuslearekin kontaktua galdu barik. Gainera, gauez izatean, argiztapen sinplearen edertasuna eranstean zaie musikaren gozotasunari eta gorputz gazteen malgutasunari.

Bestalde, garbi geratu zen sasoi betean daudela taldeko hiru neska eta mutil bakarra, eta atsegin handiz baieztatu genuen gauza berri piloa, une dibertigarriak, ezuste politak eta ideia-elkarketa aberatsak sortu daitezkeela oraindik ere dantza garaikidearen betiko lengoaia eta egituretatik gehiegi urrundu gabe.

IRAGARKI MERKEAK

943 300 222

OSTIELA! ALDIZKARIAREN 22. ALEA KALEAN!

"Antzerki hutsa da zurea" eta "MUNDUA ANTZERKI / ANTZERKI MUNDUA" erdi-monografikoa dator udako aldizkari komeriantean, diseinu eta maketazioa berrituta. Maskarada bandako MIKEL MARTINEZI elkarrizketa nagusia. Ionesco eta Beckett Godoten zain, e.a. Kanaango ezteiak, Lazaroren berpizketa, Ni eta nire sudurra, Nik ez nuen nahi eta Gobernu-Ordezkarieren heriotza antzeztan lekua osorik. Marxkara, Pistolaren Begi Zuri-Beltzak, Gabonetako Ikuskizuna, Gabon Sariak eta El Borracho Burlado-ren testu-zatiak ... "Papalagiak", samoaar buruzagiaren hitzaldi ospetsuak (Agur Jaunak Gizon Zuriri!); Lope AGIRREko unibertsalaren "Carta a Felipe II" harrigarria; Noam CHOMSKY intelektuaren mundialaren bizitza eta lanak; H.D. THOREAUREn "Desobediencia Zibila"; *Mogimendu Situazionista*; Brendan Behanen "Exekuzioa" ... Dario Fo, Anonimo Torrentianoa, "Kartxi", Mikel Elorza, Koldo Goitia, Axier Mujika, Edurne eta Amaia Alustiza, Mitxel Sarasketa eta beste belar batzuk

Merke-merke, 400 pezetan salgai E.H. osoko liburutenda eta kioskoetan. Urteko harpidetza (4 ale) 1.600 pzta (ale "atzeratuak" erdi-prezioan). Eska ezazu Ordiziako 131 p.k.-ra edo deitu (edo idatzi) 943-161835 tfno./faxera. ostiela@autovia.com

www.ostiela.com

**70 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: **6.000**
Astea (6 egun): **4.600**
2 aste (12 egun): **4.200**
Hilabetea (24 egun): **3.000**

33 x 33 mm

**33 x 33 MODULO
(Edizio orokorra)**

Eguna: **3.000**
Astea (6 egun): **2.300**
2 aste (12 egun): **2.100**
Hilabetea (24 egun): **1.500**

**33 x 33 MODULO
(Araba-Nafarroa)**

Eguna: **2.200**
Astea (6 egun): **1.900**
2 aste (12 egun): **1.600**
Hilabetea (24 egun): **1.200**

**33 x 33 MODULO
(Iparralde)**

Eguna: **84 l.**
Astea (6 egun): **73 l.**
2 aste (12 egun): **61 l.**
Hilabetea (24 egun): **46 l.**